

Itzulian nator

Euskaldunon Egunkaria, 1998-02-22: 3.

Ez naiz osorik joan, ez naiz bidean eseri baino egin, deskantsurako. Gaisotasunak markurtzen gaitu, eta nik azken urte hauetan itzulika narabilkiena Parkinsonen gaitza deklaratu eta gero hau da lehen aldiz EGUNKARIAko zutabetxoaren ohitura hausten dudala. Eskerrak, halere, buruko argiak berortan jarraitzen dutela eta hatzek ere berean xuxen jokatzen dutela oraindik. Idazle batentzat animaren arnasa! Ez, noski, ohiturako epeak betetzeko ardurak mantentzerainokoa, nire hirurogeita hamazazpigarrenean noanean gehiegizko litzateke, baina noizean behingo hitza esaten ahalegintzeko, nahiko.

Zer gehiago eska nezake?

Lehendabiziko hitz hau izan bedi niretzat aski bereziak izan diren joandako Gabonetan bere zorionak opa dizkidaten lagun eta irakurleei eskerrak emateko, eta nire aldetik berandu xamar bada ere Urte Berriaren desioak laburbiltzerakoan behin eta berriz Bakea eskatzeko. Ez bakarrik gure herriarentzat, baita bere arerioarentzat ere. Bakearen izpiritua gizakiaren biriketarako oxigenoa bezain beharrezko baita, eta hau, denon arnasketarako solidarioa, zati ezina: gorputzez lodi-potolo den lasaiarentzat bezala Gandhi bat osatzen zuten hezur eta izpiritu mami-mehearentzat ere. Aspaldi zapalduta bizi garen herri txikia osatzen dugunontzat eta oraindik handi eta poderoso sentitzen direnentzat ere, sosega daitezen. Baketsu eta justu ekitea ez da erraza, batez ere azken hauentzat. Ez dute ulertzen justiziaren argudioa indarrrean laguntzarik gabe, eta kexatzen dira txikiek indarkeriaz erantzuten diotenean, batzutan neurritz kanpo ere. Baina gaur bertan Lehendakariak prentsa bidez aldarrikatzen duena nabaritasun hutsa da: "Indarkeriaren amaiera ez da besterik gabe zerutik etorriko". Agintea duenak berekin duela uste duen Jainkoaren esku uztea errazegia da; esaera batek dion bezala; "Lagundu zaite eta Jainkoak lagunduko zaitu".